

Fitxa teknikoa GAILUPA

Especiea: *Pyrrhula pyrrhula*

Familia: Fringilidoak


Ordena: Paseriformeak

Klasea: Hegaztiak

Gailuparen fitxa teknikoa eta Euskal Herrian duen banaketa-mapa.

# Gailupa, hazijale zuhaitzar ederra

Testua eta argazkiak: **J. R. Aihartza**



**Z**uhaitzetan bizi diren txorien artean ederrenetarikoa dugu gailupa (*Pyrrhula pyrrhula*), eta arrak dituen kolore bizi eta deigarriak direla eta, behin ikusi duenak nekez ahaztuko du fringilido txapar honen itxura bitxia.

Gailupa (*Pyrrhula pyrrhula*), txonta arruntaren (*Fringila coelebs*) tamaina beretsuko hegaztia dugu, 16-18 cm-ko luzera eta 21-27 g-ko pisua dituelarik. Eta gainerako fringilido guztiak bezalaxe fitofagoa da; hazijalea gehienbat. Bere itxura ordea, ez da familia honetako kide askorena bezain liraina. Aitzitik, gailupa txori potzoloa da, biribiltzua, lepamotza eta buruhandia, eta bere moko koniko eta sendoaren laburtasunak are lodikote-itxura handiagoa ematen dio.

Koloreari dagokionez, ale helduek burua, moko eta luma arraunlariak beltzak izaten dituzte, eta ipurtxuntzurra berriz, zuria. Basoan edo baso-ertzetan bizi diren hegazti askotan gertatzen den legez, gailuparen kasuan ere dimorfismo sexuala nabarmena izaten da oso koloreari dagokionez. Emearen bizkarra gris arrea, eta lepapea eta sabela gris argiak diren bitartean, arrak alde dortsal gris urdinska eta paparo nahiz sabel gorritzat deigarriak ditu.

Txori eder hau izaeraz lasaia da oso, fidakaitza eta lotsagabea, eta horrexegatik nahikoa erraza izaten da berau bertatik ikustea. Bizimoduari dagokionez zuhaitzarrak da erabat, eta beti ere zuhaitz eta zuhamuxketan aritzen da gora eta behera, lurrera ia sekula ere jaitzi



**Hegaztiaren bizimodu zuhaitzarrak eta elikadura-mota direla eta, gailupa baso-ertzetan, larreak eta zuhaitz-multzoak tartekatzen direnetan, eta zuhamuxkez jantzitako palaxuetan bizi da gehienbat.**

gabe. Elikaduraren aldetik fitofagoa dugu gailupa, eta ondorioz, bere dieta aldakorra da urte-sasoien arabera: udaberrian kimuak eta loreak sabeleratzen ditu gehienbat, baina urteak aurrera egin ahala, fruituak eta haziak jateari ekingo dio, hauek eskaintzen dioten balio energetiko handiagoa eskuratzearen. Gainerako fringilidoetan gertatzen den legez, gailuparen kasu-

an ere mokoak haziak txikitu eta jateko moldatutako tresna bikaina da: aho-sabaian kokatutako barrunbean egokitzen da hazia, eta behe-baraila muskulu maxilar sendoek igotzen duenean hautsi egiten du, hazi-azala mihiaz kanporatu eta gainerakoa berehala irentsiz.

Hegaztiaren bizimodu zuhaitzarrak eta elikadura-mota direla eta, gailupa baso-ertzetan, larreak eta zuhaitz-multzoak tartekatzen direnetan, eta zuhamuxkez jantzitako palaxuetan bizi da gehienbat.





Udaberria ugaltzeko sasoia da gailuparentzat ere, eta ondorioz, urtean zehar talde txikitan bizi diren arren, garai horretan bikoteka banantzen dira gailupak, eta lurraldekoitasun handia izaten dute gainera. Habia altuera txikian zotz eta sustraitxoak eraikitako ontzi-itxurako egitura xumea izaten da, eta bukatuta dagoenean emea bertan geratzen da 12-14 egunez, ondoz ondo egunetan errundako lauzpabost arrautza urdin txititzen. Bitarte horretan arra habia-inguruko lurralde txikia defendatzeaz eta emea bazkatzeaz arduratzen da. Eta horra hor txori hauen dimorfismo sexual nabarmenaren arrazoia: emeak luze egon behar du habian, eta ondorioz kolore apalak ditu etsaiek ikus ez dezaten. Arra berriz, lurraldearen defentsaz arduratzen da, eta kolore bizi deigarriak lagungarri ditu egin behar horretan.

Bestalde, txitoek 16-18 egun igarotzen dituzte habian hegan egiteko gai izan aurretik, eta txori hauen lurraldea tamainaz txikia izaten denez, kumeak elikatzea araren eta emearen artean burutu beharreko lana izaten da. Hazijale



*Ikusi duenak nekez ahaztuko du fringilido txapar honen itxura bitxia.*

gehienek intsektuz elikatzen dituzte beren txitoak, baina gailupak eta gainerako karduelinoek (karnabak, txokak, eta abarrek...) haziak ere ematen dizkiete intsektuekin batera. Paparaoan biltzen dituzte guztiak, ondoren habiara iritsi eta txitoi emateko. Horrela, gailupak 2 edo 3 txitaldi osa ditzake urtean, eta udatik aurrera guztiak familia

txikitan bizi dira, hurrengo udaberria iritsi artean.

Baina udazkenarekin batera elurra ere iritsi daiteke, eta gailupak migrazio partzialak egin ditzakete, nahiz eta normalean gure eskualdean bizi direnak sedentarioak izan. Jakia zuhaitz eta sastraketan lortzen duten zenbait espezieter moduan, iparraldeko eremuetan gailupak ere ez du neguan bazka lortzerik izaten, eta hegoaldera, edo elikagaiak topatuko dituen lekutara alde egin dezake. Era berean, uzta ugari biltzen denetan bertako gailupa-populazioa ikaragarri emenda daiteke inmigrazioa dela eta, eta zenbait eskualdetan horrek ondorio latzak ekar ditzake; aldika behintzat gailupak frutarbolak ugari diren lurraldeetan izurrite bilakatzera ere iristen baitira.

Banaketari dagokionez, gailupa espezie eurosiberiarra da, eta ondorioz ia Europa osoan aurki genezake, eskualde mediterraniarrean bakanagoa den arren. Iberiar penintsulan oso urria da, eta iparraldean eta Pirinio ingurutan soilik da habiagile. Euskal Herrian berriz, eskualde eurosiberiarrean eskuarki ugaltzen den espeziea da gailupa, bai pagadietan, hariztietan, ameztietan nahiz oihan mistoetan. Araba eta Nafarroako erdialde eta hegoaldean berriz, ingurune menditarretako laiotzetan aurki genezake, amezti eta erkameztietan batez ere, eta inoiz baita artadietan ere. 



*Gailuparen kasuan dimorfismo sexuala nabarmena izaten da oso, koloreari dagokionez.*